

## MATIASEN AMETSA

Testua eta irudiak: LEO LIONNI

Itzulpena: MANU LÓPEZ GASENI

Azal gogorrean koadernatua. 22 x 27,5 cm. 32 or. 15 €

CHILDREN'S CHOICE IRA-CBC SARIDUNA  
(International Reading Association – Children's Book Council)

**Matiasen ametsa** (euskaraz)

ISBN 978-84-7681-755-1. Kalandraka-Pamiela.

**El sueño de Matías** (gaztelaniaz)

ISBN 978-84-92608-65-2. Libros para soñar.

**O soño de Matías** (galegoz)

ISBN 978-84-8464-794-2. Tras os montes.

**El somni d'en Mateu** (katalanez)

ISBN 978-84-15170-26-6. Kalandraka-Hipòtesi.

**O sonho de Mateus** (portugesez)


ISBN 978-998-8205-82-7. Livros para sonhar.

Saguak oso pobreak ziren, baina Matias zen haien itxaropena. Handitzean sendagilea izan zitekeen, agian. Eta orduan gazta parmesanoa izango lukete gosaltzeko, bazkaltzeko eta afaltzeko. Baina Matiasi zer izan nahi zuen galdetzen ziotenean, erantzuten zuen:

«Ez dakit... Mundua ikusi nahi dut».

Artea, mundu osoko kulturaren eta jakintzaren erakusleho gisa; sorkuntzaren eta askatasunaren adierazpen gisa; errealitatea eraldatzeko bide gisa. Museo batera egindako lehen bisitak bizitza aldatu dio Matiasi, eta bere etorkizuna bideratzen lagundu dio: ganbara apal batean bizi izatetik bidaiatzeria eta bere margolanak nazioarteko prestigioko aretoetan erakustera.

Leo Lionnik zenbait estilotara hurbiltzen gaitu, portreta historiko eta izadi hilen klasizismotik impresionismo, kubismo edo surrealismoaren tankerako arte-abangoardietara. "Matiasen ametsa" haurrak hezkuntza estetikoan eta forma-koloreen interpretazioan abiarazteko album bat da. Fantasiaz betetako istorio hurbil baten bidez, eta collage erako aberastasun kromatiko handiko ilustrazio deskriptiboen bitarte, egileak bere bi grina nagusiak partekatzen ditu irakurleekin: artea eta musika, haurtzaroa markatu baitzoten eta gaur eguneko haur literaturako erreferente nagusietariko bat bihurtu baitzuten.



- **Gala:** artea.
- **Gomendatutako adlina:** 4 urtetik aurrera.
- **Alderdi azpimarragarriak:** haur literaturako klasikoa; margolaritz-a-estiloak; museoak; "Frederick", "Igeritz", "Munduko etxerik handiena", eta "Urdin Txiki eta Hori Txiki" albumen eta oraindik irakurtzen ez dakitenentzako "Frederick" sailaren egile berarena.

### Leo Lionni

(Amsterdam, Holanda, 1910-Toscana, Italia, 1999)

Leo Lionni arte-giroan hazi zen -ama opera-kantaria izan zen; osaba Piet, berriz, margolaritz-a-zale handia eta oso gaztetatik jakin zuen huraxe izango zela bere zoria. Jaso zuen formakuntza, aldiz, ez zen artistikoa izan, Ekonomian dokturu bairten. 1931n Milanen bizi zuten hasi zen eta lehen harremanak izan zituen diseinu grafikoarekin. 1939an Ameriketara joan zenean, Filadelfiako publizitate-agentzia batean, Olivetti korporazioa eta Fortune aldizkarian lan egin zuen. Artista gisako ospea ere lortu zuen eta bere margolanak galeriarik onenetan erakusten hasi ziren, Estatu Batuetatik Japoniaraino. Lionnik berak noizbait esan zuenez, "Nolabait, nonbait, arteak haurtzaroko sentimernak adierazten ditu beti". Haurrentzat idatzi zuen lehen liburua ia ustekabeen sortu zen 1959an: tren-bidaia batean, zetazko paper zatiez egindako istorio baten bidez bilobak entretenitzea otu zitzaien. Halaxe sortu zen "Urdin Txiki eta Hori Txiki", eta haren atzetik mundu osoko aditurek txalotutako 40tik gorako obra gehiago. Eskultore, disenitzale, margolari eta ilustratzaile gisa egindako merituengatik Arte Grafikoen Amerikar Institutuaren Urrezko Domina jaso zuen 1984an.

www.**kalandraka**.com  
comunicacion@kalandraka.com

www.**Pamiela**.com  
soltxate@pamiela.com